



|| Eneko Bidegain

Marie-Andree Arbelbide

«Plazer handia ukan dut herritarrek euskal gaiak emeki-emeki onartu dituztelako»

Marie-Andree Arbelbidek (Lekorne, Lapurdi, 1936) udal hauteskundeak galdu zituen martxoan. 31 urtez izan zen Heletako (Baxenabarre) auzapez. 1977an auzapez bihurtu zenean, Ipar Euskal Herrian bi emazte baizik ez ziren, kargu horretan. «Marie-Antoinette Etxebarren Urepeleko auzapezarekin batera, biak ginen barnealdeko emazte auzapez bakarrak. Ez gintuzten aise onartu». Heletan %10-15 bat lagun ziren erroitik aurka zirenak. «Heletan ez da auzapez izateko gai den gizonik?», erraten omen zuten. Hala ere, Arbelbidek «suertea» ukan zuen. «Batetik ene aita Lekorneko auzapeza izan zen eta ezaguna zen; eta, bestetik, ikasketak eginak nituen». Ikasketak eginak izatea baloratu zuten herritarrek. «Badaki; ikasketak eginak ditu», erraten zuten. Enpresagintza ikasi zuen, Paristik hurbil. Lekorneko Lafitte mintegiko alaba gisa, familiako enpresaren segida hartzekotan, halako ikasketak

Ipar Euskal Herriko lehen auzapez abertzaleetarik bat zen Marie-Andree Arbelbide. 31 urtez kargu hori ukan ondoan, hauteskundeak galdu zituen joan den martxoan. Ez da kexu horregatik.

egin behar izan zituen. Baina, berez, psikologia ikasi nahi zuen.

Hauteskunde biharamunean, pausatuko zinela erran zenuen. Bizi lasaigoa da auzapez kargua utzirik? Mementoan ez dut sobera ikusten lasaitasun hori (irriak)! Baina jinen da, bai. Oraino gauza franko badut ordenan ezartzeko. Lan anitz gelditzen da.

Postu akigarria da auzapez kargua? Entzuten zen herri txiki anitzetan auzapezek ez zutelakarguan jarraitu nahi eta ez zela hautagairik...

Hori entzuten da, baina gero ikusten da beti norbait ateratzen dela. Hori gertatu zait. Bazirudien inor ez zela motibatua; nire taldean inork ez zuen nire tokia hartu nahi. Horregatik aurkeztu nintzen berriz. Baina 31 urteren buruan

normal da lekua besteei uztea, ene ideia hori zen. Orain, nire asmoa sei urtez jarraitzea zen, baina lekua beste bati uzteko. Ez didate horretarako aukerarik utzi. Behar bada oraino hobe da horrela. Zergatik egoten dira auzapezak kargu horretan hainbeste urtez? Ez da erraza sartzea, ezta ateratzea ere. Behar duzu hau eta hori jarraitu; hori ongi ezagutzen duzu... Pre-

sio bat bada. Bestetik, interesgarria da auzapez izatea; anitz ikasi dut kargu horretan. Baina hobe da auzapeza gehiagotan aldatzea. Nire kasuan ez da horrelakorik gertatu. Erranen didate, beharbada, taldea ez nuela ongi hautatu? Inork ez zuen gogorik kargu horren hartzeke, baina beharbada ez nuen gogorik ematen? Egia da denbora aski libre ukan behar dela. Gure enpresa hor, norbaitek egiten du lana. Erraztasun hori banuen. Lan anitz hartzen nuen ene gain, eta horrek ere gibelarazi zituen, beharbada? Oraingo auzapeza lotu da!



NICOLAS MOLLO

bat muntatu nahi zelarik, oposizioa sentitzen zen segidan.

Eta zure memento hoberenak?

Badira anitz. Lekornen sortua naiz, baina Heleta berehala maite ukan dut. Auzapez izateak anitz ekartzan dizu. Plazer handi bat ukan dut herritarrek euskal gaiak emeki-emeki onartu dituztelako. Laborantza Ganberaren aldeko erabakiak hartzean, herriko kontseilu guztiak bat egin zuten.

Duela 30 urte ez zineten auzapez abertzale anitz, Ipar Euskal Herrian, hainsegur. Nola hartu zintuzten?

Auzapez bihurtu nintzenean, 1977an, ez zen aipu hautetsi abertzalerik. Ene senarra Enbatako kidea zen, eta nik ere mugimendua segitzen nuen. Baina auzapezen artean ez zen abertzaleatsunik aipatzen. Gero, aski laster etorri zen. 1980ean euskal departamenduen aldeko hautetsien elkarteke goitza Heletan ezarri genuen. Hauteskundeak izan ziren hurrengo aldian hori aipatu zen. Jendeak kritikatu zuen, baina herria kudeatzeko moldeak gaina hartu zuten. Kudeatzeko moduan konfiantza eman ziguten, eta beraz hauteskundeak berriz irabazi genituen. Beti aski kritika gogorrek ukan izan ditut, baina horrek elkartasuna ere eragiten zidan, ez nire ideiantzat, baina pertsonalki. 1995ean, Negu Gorriak taldearen kontzertua Heletako plazan antolatzea onartu nuen. Beste inork ez zuten bere herrian ukan nahi. Herriko bozak baino zortzi egun lehenago izan zen. Aste osoan kritika gogorrek ukan nituen, baina nire emaitza hobereana hauteskunde haietan lortu nuen. Geroztik, ez nindutela gehiago kritikatuko erran zidaten.

Euskal departamenduen alde, hautetsi gisa egiten zenuen lana gelditzeak eman zizun pena handiena, hauteskundeak galtzean. Oraingo taldea ez da aldarrikapen horren aldekoa?

Oraingoz ez dut kezkarik. Bazko egunean ikurrina ezarri zuten. Ez ziren denak alde, baina gehiengo ados zen. Hasieran kezka horren berri eman nuen, talde hori ez baita sobera aldekoa. Baina ez dira gure taldearen aurka joatera auzartzen. Transgenikoen kontrako pankartak ere ez dituzte kendu... Hautetsiek zertan lagundu zenuen euskal departamenduen aldarrikapenaren zabalteak? Ez dakit... Han izatea bera laguntza bat zen.

Departamenduen aldeko auzapez bozketa izan zen. Horrek aldarrikapenari izari handi goa eman zion?

Egia! Egia! Bizpahiruetan izan zen. Ez nuen itxaropen handirik, egia erran.

Kostaldeko auzapezek zioten bozketak horrek barnealdeko herri txikien kexua adierazten zuela, kostaldearekiko desorekari begira; eta ez zuela, zinez, euskal departamenduen aldeko grina erakusten. Interpretazio horrekin ados zara?

Zenbakietan horrela agertzen da. Baina Lapurdiko herri anitzetan ere euskal departamenduen alde bozkatu zuten. Baiona, Angelu eta Miarritze ziren ez zirenak alde agertu.

Euskal departamenduen aldeko manifestazioetan auzapez andana bat ikusi genuen. Frantses banderaren koloreen xingolarekin ikusi zintugun, beste auzapez abertzale batzuekin batera. Ez da kontraesana abertzale batek kolore horiek soinean eramatea?

Zerbait aitzinarazteko baldin bada eta hori egin behar bada besteek segi gaitzaten, zergatik ez? Ez dit arazorik ematen. Auzapez karguaren sinbolo gisa erabili genuen, jendeak jakin zezan auzapezak ginela.

Auzapez izateagatik, Frantziaren koloreak soinean eramateak ez dizu arazorik sortzen?

Oharkabean ere janzen dugu. Inaugurazio bat izaten zelarik, beti ikurrinaren koloreekin egin nuen. Eta prefetak berak mozten zuten xingolagorri, berde eta zuria. Gaur egun ez da hainbeste aipatzen euskal departamendua. Zergatik? Akiduragatik. Badu hiru urte ez dugula biltzar nagusirik egin.

Zer erran nahi du, departamenduen borroka galduta dela?

Ez, beharbada ez. Batera plataformarekin itxaropen gehiago izan daiteke. Hauteskunde garaian sinadura gehiago bildu dute. Zerbait gisaz lotu behar gatazko aldarrikapen horri.

Euskal departamendua ez da lortu, baina Ipar Euskal Herrian dinamika bat bada, besteak beste ekonomia arloan. Horrek zertan aberastu du Ipar Euskal Herria?

Gazteak hemen gelditzen dira. Hemen lan egin nahi dute. Duela 30 urte jendea Parisera-eta joaten zen lanera. Hori anitz aldatu da. Orain, gauzak pentsaturik egiten dira. Gazteak Euskal Herrian gelditzen badira, badakite zergatik gelditzen diren. Jendeak sentitzen du euskaldunak garela. Duela 30 urte euskara gehiago mintzo zen, baina ez zuten beren burua orain bezain euskaldun sentitzen.

Zuk ikasketak egin zenituen, eta Euskal Herria itzultzea erabaki zenuen. Zergatik? Atxikimendu horregatik?

Ingeniaritza ikasi nuen, Paristik hurbil, 1955ean. 1960ean lanera itzuli nintzen Euskal Herria. Nik, enpresarekiko atxikimendua neukan; horregatik itzuli nintzen. Enpresaren segida hartu nuen, erabaki hori ez nuen Euskal Herria itzultzeagatik hartu. Kontzientzia hori gero ukan nuen.

Aipatu duzun enpresa, familiakoa, Lafitte mintegia da, eta oraino han ari zara lanean. Enpresa aski ezaguna da Ipar Euskal Herrian. Zer ekartzan diozue lekuko ekonomiarri?

Inguruko jendea ari da lanean, hemen. Baina lehen hemen euskara baizik ez zen mintzo; orain, hori ez da horrela. Lekuko jendea ez da euskaraz ari elkarren artean.

• Motzean

Landare bat balira...

Andre Darraidou.

Pagoa. Pagoa zuzen joaten da. Arbola ederra da.

Jean Espilondo.

Laparra!

Michele Alliot-Marie.

Hain da zurruna... Zuhaitz guztiak sinpatikoak dira; Alliot-Marie ez da hala. Kana-bera izatekotan? Eta oraino...

Jean-Jacques Lasserre.

Kanabera, baita ere. Baina hain da azkarra, eta baita malgua ere. Harrigarria da zein ongi ezagutzen dituen denak.

Jakes Abeberri.

Haritza. Anitz miresten dut. 76 urtetan, beti hor, beti hor!

Jean-Mixel Galant.

Zurzuria.

Loregintza eta baratzegintza sektoreak arrakasta badu?

Garai hobek ukan izan ditugu. Orain Italiako, Europa ekialdeko eta Asiako kompetentzia jasaten dugu. Duela zenbat urte gu baizik ez ginen ari hemen. Bestalde, kontsumoan geldialdi bat bada.

Etzegintza krisia batean sartzen ari da, etxe gutxiago saltzen da. Horren ondorioak jasaten dituzue?

Partikularren artean, dudarik gabe, bezero gutxiago ukamen dugu. Laborantzan bezala da. Produktzio aski dagoenean, ongi, baina memento batez soberakina sortzen delarik, arazoak sortzen dira. Azkenaldian kezka anitz sortzen da, transgenikoak direla-eta, landareen kalitate dela-eta... Zuen enpresan horren eraginak sentitzen dituzue?

Guk kalitatearen aldeko apustua egiten dugu, horrek salbatuko gaitu. Dena den, transgenikoak sartuko direlako mehatxurik ez dugu. Landare mota gehiegi ekoizten dugu horretarako. Transgeniko ekoizleek interesa dute kantitate handietan ekoizten diren landareetan, artoan bezala. Baina gurea bezalako sektoreetan ez dira aski kantitate handiak produzitzen, landare bakoitzetik. Guk 2.500 landare mota ekoizten ditugu. Aldiz, guk, pozo gutxiago erabiltzen ditugu eta landare zikinak eskuz botatzen ditugu.

Jendeak etxea eta lur zatia erosten du, baina gero badu bere baratzetz arduratzeko astirik?

Ez. Hori ere arazo bat da. Gazteak ez dira motibatuak beren landare edo fruituak ekoizteko.

Gaur egun, egunean bost barazki edo fruitu jan behar direlako mezuak pasarazten dituzte. Horrek zuen merkaturari mesede egin diezaioke?

Ekoizleen sindikatu baten barne gara. Gure komunikazioa da, landareak onak direla osasunarentzat. Bidai agentziek alimaleko publizitatea egiten dute. Bidaieetan dirua gastatu nahi duenak, ez du landareetan gastatzen.

Norbaitek duda baldin badu bidaia-tzearen eta landareak erostearen artean, zer argudio ematen diozu konbentzitzeko?

Osasunarentzat ona dela. Landarea beti hor izan du. Bidaia bukatzen da. Oroitzapenak gelditzen dira, baina... Landarea ona da, oxigenoa ematen baitu.

Berotze efektua aho beteka aipatzen den garai honetan, landareen eta zuhaitzen botatzak kezka eragiten ditu?

Bai, izugarria. Ikusten dudalarik Hego Amerikan zenbat zuhaitz botatzen ari diren... Gainera, batzuek beharbada mila urte dituzte. Kezka handia sortzen dit. Hala ere, itxaropena atxiki behar da. Egoera hobetuko da.

Uste duzu baietz? Batzuk egoeraz oharturik ere, ez zaizu iruditzen ororo har ez dela ezer aldatzen?

Gero eta gehiago dira kezkatzen direnak eta ingurumenaz interesatzen direnak.



Gazteak Euskal Herrian gelditzen badira, badakite zergatik gelditzen diren. Ez da lehen bezala»

«31 urtez auzapez izan ondoan, normal da lekua besteei uztea, ene ideia hori zen»

Kargua kendu dizun taldea zure ikustera joan omen zen, hauteskundeetatik landa, herria nola kudeatu behar zengaldeginez.

Bai, hala da. Bagenuen programa eder bat zutik ezarria, eta erran zuten hori segituko zutela. Berak harrituak izan ziren ikusiz nola irabazi zuten.

Zein izan dira auzapez gisa bizi izan dituzun memento zailenak?

Atxiloketak gertatu izan direlarik, edo Maddi Hegi hil zenean eta Jean-Louis Larre [IKko kideak] desagertu, memento gogorrek izan ziren. Euskal departamenduen aldeko hautetsien elkartearen goitza ere Heletan ezarri genuen. Kritikak ukan nituen horregatik. Hala ere, ene alde bozkatu zuten hurrengo hauteskundeetan.

Atxiloketen eta herioen ondorioak azkar sentitu ziren herrian? Herria zatitu zen?

Ez, ez ziren zatitu. Heletan beti ukan dugu oreka bat. Herri anitz bitan zatituak dira; Heletan ez da horrelakorik. Oposizio bat bada, baina ez da hain gogor sentitzen. Jendea elkarrekin mintzo da, bakoitza berea gogoan, baina... Zer-